



TOLOSAKO  
UDALA

## 2018KO APIRILAREN 17KO HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURETAKO BATZORDEAREN DIKTAMINA TOLOSA LOTZEN, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN DESEGITEA ETA LIKIDATZEARI BURUZ.

2018ko martxoaren 27an burututako Tolosa Lotzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak aho batez onartu zuela sozietatearen desegitea eta likidazioa burutzeko prozesua martxan jartzea.

Saio berean aurreratu zenez, Hirigintza Batzordean beharrezko informazioa eta azalpenak ematea adostu zen.

Desegitearen eta likidatzeari buruz azalpenak emateko ATE aholkularitza enpresako kideak gerturatu dira saiora honakoak adieraziz:

- Batzar Orokorreko saioko ekintza berean desegitea eta likidatzea onartzea posiblea dela.
- Administrazio kontseiluko kideak eta Batzar Orokorreko kideak zinegotzi guztiak direnez, denak izan beharko dute likidatzaileak.
- Erabakia hartzeari dagokionez, Batzar Unibertsalaren kasuan, kapital guztia udalarena den heinean, nahikoa dela udalbatza legez behar bezala eratuta egotea eta erabakia hartzea.
- Jarraian denak likidadore izendatuko direla. Espreski onartu beharra dagoelarik likidadore izendapena eta Batzar Unibertsalaren saioan kideren bat faltako balitz, gerora espreski onartu beharko lukela notaritza aurrean, udal idazkariarekin batera Batzar Unibertsalaren erabakiaren ziurtagiria eskutan duela, desegite erabakia eskrituratzerako joatean.

Azalpen guztiak eman eta zalantza guztiak argitu eta gero, **honakoa diktaminatu da** bertaratutakoen aldetik eta aho batez:

- 1.- Onartzea Tolosa Lotzen, S.A., udal sozietatearen Batzar Orokorrak proposatutako sozietatearen desegitea.
- 2.- Sozietatearen likidazioatik eratorritako ondareak Udal Ondare Inbentarioan txertatzea .
- 3.- Udal sozietatearen desegite, likidatze eta iraungitze akordioetatik ondorioztatzen diren beharrezko kontabilitate eragiketak egitea.
- 4.- Alkatea ahalduntzea Jabetza Erregistroan Higiezin Ondareak inskribatzeko behar diren eskritura publikoak sina ditzan eta sozietatearen desegite, likidazio eta iraungitzeatik eratorritako ezein dokumentu sinatzeko.

Tolosan, 2018ko apirilaren 17an.

  
Angel Uranga Txurruka  
Hirigintza Departamenduko Burua